



PRENTSA TXOSTENA_
ELKANO ITSAS HERRIA
ITSAS HERRI BATEN KULTURA ADIERAZPENA
2022ko maiatza - iraila

Testuingurua: 500 urte lehen zirkumnabigaziotik eta itsas ondare partekatua

Duela 500 urte, 1522ko irailaren 6an, Victoria itsasontzia Sanlucar de Barramedako portura iritsi zen, Getariako itsasgizon Juan Sebastian Elkano buru zuten 18 gizonekin. 1519an bost itsasontzi eta 247 gizon itsasoratu ziren, Fernando de Magallanes portugaldarraren agindupean, Ekialdeko Indietarantz, mendebaldetik espezia gutiziatuetara eramango zituen itsas bide berri baten bila. Handik hiru urtera, bizirik iraun zuten gutxi batzuek Lehen Mundu Bira osatu zuten.

Lehenengo zirkumnabigazioa alde batera uzterik ez dugun mugarri historikoa da. Aukera bikaina da, ez bakarrik espedizio hari euskaldunek egindako ekarpenari buruzko ezagutza aztertzeko eta zabaltzeko –antolaketa, itsasontzi-eraikitzaile gisa edo nabigatzaile gisa–, baita Lehen Mundu Biraren testuinguru sozialean sakontzeko ere.

Gertaera haren tamainak agerian utzi du Elkanoren garaiko euskal herriak ezagutza izugarria zuela ontzigintzaren teknologiaz eta beste itsas lanbide batzuez. Azken batean, bizimodu oso bat jartzen du agerian, itsasoari lotutako kultura bat, euskal kostalde osoak partekatzen duen ondarea, hain zuzen ere.

Helburua: euskal kostalde osoak partekatzen duen itsas kultura zabaltzea

Testuinguru horretan, maiatzaren amaiera eta iraila bitartean, **Elkano Itsas Herria** proiektua gauzatuko da. Euskal kostaldean barrena egingo den zeharkaldi baten bidez, Euskal Herriko kostaldeko herriek partekatzen duten itsas kultura zabalduko da, herri gisa itsasoarekin dugun harremana berreskuratzeko helburuarekin.

Elkano Itsas Herria ‘Pasaia Itsas Festibala’ ekimenean hasiko da (maiatzak 26-29) eta euskal portuetan barrena ibiliko da irailaren 18ra arte (Ondarearen Europako Jardunaldiak, Ziburu-Donibane Lohizunen). Hori guztia, irailaren 6an Getarian lehorreratu ondoren izango da, Elkanoren lehorreratze-egunarekin bat eginez (horren antzezipenak aurten mendeurrena beteko du eta jaiegunean ospatuko da, Euskal Autonomia Erkidegorako hala izendatu baitute).

Hiru hilabete luzez, *Juanita Larandok* (patatx-motako bela- eta arraun-ontzia), hemezortzi tripulatzailerekin batera, portuz portu nabigatuko du kostalde osoan zehar, eta hogeita hamar herri inguru bisitatuko ditu. **Elkano Itsas Herria** kultura-itsasaldia osatzeko, erakusketa ibiltari bat eta mota guztietako publikoentzako jarduera eta animazio multzo bat egingo dira: historiari buruzko hitzaldiak, solasaldiak, bertsolariak, musika, dantza, ipuin-kontalariak, lantegiak, dokumentalak...

Juanita Larondo patatxa, Euskal Herriko itsas ondarearen berpizkundearen ikurra

Juanita Larando itsasontzia Albaolako APRENDIZTEGI nazioarteko aroztegi eskolan eraiki dute, joan den mendeko 70. eta 80. hamarkaden artean Orioko Mutiozabal ontziolan aurkitutako planoetatik abiatuta. Patatx horrek 15 metroko luzera du, arraunen nahiz belen bidez ibil daiteke eta hemezortzi lagunek osatutako eskifaia behar du. Itsasaldian zehar, zortzi arraunlari eskarmentudunek osatuko dute eskifaia. Bestalde, eskifaiaiko gainerako kideak (hamar plaza) etapaz etapa aldatuko dira, eta **Elkano Itsas Herriak** bisitatutako herrietako arraunlariek osatuko dute. Patatxa portuan ainguratuta egongo den egunetan, herritarrek irteera txikiak egiteko aukera izango dute, itsasontzian nabigatzen ikasteko.

Patatxa XVIII. mende inguruan euskal kostaldean erabiltzen zen ontzi-mota azkar bat da, eta erabilia izan zen bai toki batetik bestera albisteak bidaltzeko, bai portu eta kostaldeak zaintzeko. Kortsarioek ere asko estimatzen zuten ontzia zen; abordatzeetarako oso baliagarria iruditzen zitzairen. Hain zuzen ere, XVII. mendeko Donostiako kortsario eta, aldi berean, tabernari batek, Juana Larandok, eman dio izena patatxari.

Itsasaldi osoan zehar, segurtasun-zodiak batek lagun egingo dio itsasontziari, eta koordinazio-talde bat lehorretik ibiliko da batetik bestera erakusketa eta jardueretarako elementuak garraiatzeko eta eskifaiairi laguntza logistikoa emateko.

Elkano Itsas Herria, euskal kostaldeko erakundeek eta herriek sarean egindako lanaren emaitza

Elkano Itsas Herria ekimenak agerian uzten du Elkano Fundazioak, Albaolak eta Donostiako Euskal Itsas Museoak sarean lan egiteko duten gaitasuna. Ekimenak Getariako eta Pasaiako udalen lankidetzat du, baita Euskal Herri osoko eragile eta administrazio publiko askoren parte-hartzea ere: Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Ipar Euskal Herriko Euskal Hirigune Elkargoa, Gipuzkoako udalak (Mutriku, Deba, Itziarko toki-entitate txikia, Zumaia, Aia, Zarautz, Orio, Donostia, Hondarribia eta Irun), Bizkaiko udalak (Ondarroa, Lekeitio, Ea, Elantxobe, Mundaka, Bermeo, Bakio, Armintza (Lemoiz), Plentzia, Getxo, Portugalete, Barakaldo, Bilbo), Lapurdiko udalak (Hendaia, Ziburu, Azkaine, Donibane Lohizune, Biarritz, Bidarte, Getaria, Baiona) eta Urola Kostako Mankomunitatea, BasqueTour, Eusko Label, HAZI, Pasaia Itsas Festibala, Urmuga eta EuskarAbentura.

Euskal kostaldeko udalekin batera, hauek dira proiektuaren sustatzaile nagusiak:

ELKANO ITSAS HERRIA



Juanita Larando itsasaldia - Pasaia-Getaria

Elkano Itsas Herria 'Pasaia Itsas Festibala' ekimenean hasiko da (maiatzak 26-29) eta hogeita hamarren bat euskal portutan barrena ibiliko da irailaren 18ra arte (Ondarearen Europako Jardunaldiak, Ziburu-Donibane Lohizunen), irailaren 6an Getarian lehorreratu ondoren. Honako hau izango da itsasaldia:

MAIATZA: Getarian hasiko da, eta Pasaia Itsas Festibalean egongo da maiatzaren 26tik 29ra bitartean.


EKAINA: Bizkaira joango da eta dagoeneko baieztatuta dago hamar bat herri bisitatuko dituela, besteak beste: Ondarroa, Bilbo, Portugalete (700. urteurrenaren ospakizunak direla eta), Plentzia, Elantxobe eta Lekeitio.

UZTAILA: Gipuzkoara itzuliko da, eta Mutrikun barrena kostaldeko herrietan egongo da, besteak beste: Deba-Itziar, Zumaia eta Orío, eta hortik Hondarribira. Uztailaren amaieran Urmuga elkartearekin eta EuskarAbentura espedizioarekin bat egingo du Txingudi aldean eta Lapurdin sartuko da.

ABUZTUA: atsedenaldirik baten ondoren, Gipuzkoa eta Lapurdi arteko itsasaldia jarraituko du, eta aurretik bisitatu gabeko herrietara iritsiko da.

IRAILA: Getariara itzuliko da eta Elkano Egunaren egitarau bereziaren zati izango da. Donostiatik igaro ondoren (Arraun Astea eta Euskal Jaiak), itsasaldiak azken zati bat izango du, eta Ziburu-Donibane Lohizunera itzuliko da Ondarearen Europako Jardunaldietara.

ELKANO ITSAS HERRIA




Itsas kultura euskal kostaldeko herrietan

Elkano Itsas Herria ekimena herri guztietarako oinarrizko proposamen pertekatu batetik abiatuko da, baina berezitasun propioa bereganatuz joango da, geldialdi bakoitzeko herri bakoitzaren ezaugarri bereziei esker. Patatxak geldialdiak egingo ditu, 1 eta 4 egun artekoak. Hainbat eskala tekniko ere egingo ditu; horietan ez da kultura-programaziorik egingo.

Jarduera hauek egingo dira:

- Erakusketa ibiltaria, euskal gizartearen garapenean itsas kulturak izan duen garrantziari buruzko barriekin eta olanekin. Hainbat eduki-multzok osatzen dute erakusketa. Alde batetik, Elkanoren lehen zirkumnabigazioa, eta, bestetik, Elkano Itsas Herria ekimenak igaroko dituen kostaldeko herrien historia eta itsas ondarea biltzen dituen proiekturako sortutako panelak.
- Arraunketaren hastapenerako irteerak, bai itsasoan, bai ibaian, parte hartu nahi duten eta aldez aurretik izena ematen duten herritarrentzat (ezinbestekoa da arrauna maneiatu ahal izatea).
- Proiektuari buruzko informazio-gunea eta produktuak saltzeko gunea.
- Kultura-programazio berezia; Euskal Herriko itsas kulturarekin lotura duten proiektuetan lan egin duten artistek eta sortzaileek parte hartuko dute. Programazioa aldatu egingo da herri batetik bestera; izan ere, tokiko kultura-eragileen esku-hartzea bultzatu nahi da, kanpotik etorriko direnekin batera lan eginaraziz.



Gainera, programak, besteak beste, honako ekintza hauek ere barne hartuko ditu:

- **Historiari buruzko hitzaldia**, Xabier Alberdik (Euskal Itsas Museoko zuzendaria), euskal kostaldeko itsas gaietan aditua den beste pertsona batek edota bertako historialariren batek emana.
- **Bertso saioa**, itsasoarekin lotura duten gaiei buruzkoa.
- Kresala Dantza Taldearen “**Amoria & Dolore. Elkano Lehen Mundubira**” dantza-ikuskizuna.
- Lumi elektro-indie musika taldearen kontzertua; “**Bezperen Dirdira**” diskoa aurkeztuko du taldeak (Elkanori eta itsasoari buruzko olerki-bilduma batean oinarrituta).
- **Mitzel Etxekopar** zuberotarrak Elkanori buruz sortu duen ikuskizuna; pastoral baten elementuak dituen errezitaldia, antzerkirekin eta musikarekin.
- “**Elkano battela, xumea baina gurea**” helduentzako ikuskizuna, Nerea Alberdiren eta Kepa Elgoibarren musikarekin eta Koldo Amestoy ipuin kontalariarekin.
- “**Elkarrekin Elkano**” umeentzako ikuskizuna, Iñaki Martiarena “Mattin” marrazkilariarekin eta Ixabel Agirresarobe ipuin kontalariarekin.
- **Astronomiari** buruzko tailerrak haurrentzat, Aranzadi zientzia elkartearen eskutik.
- Elkarrizketak erakusketa ibiltarian, Euskal Itsas Museoaren eskutik.
- Itsasoarekin lotura duten **lanbide tradizionalen** erakusketak eta lantegiak, Albaolaren eskutik.
- “**Pedalkadak itsasoan**” dokumentala, Euskal Herrian barrena itsas ondarearen bila bizikletaz egin zen bidaiari buruzkoa, eta solasaldia ibilbidean parte hartu zuten pertsonetako batzuekin.
- “**Elkano, haizeari mila galdera**”, Getaria eta Sevilla artean belaontziz egin zen itsasaldiari buruzko dokumentala, eta solasaldia itsasaldian parte hartu zuten pertsonetako batzuekin.



Info +
Prentsa-kontaktua

Nagore García de Vicuña
+34 630986610